

Sorkuntza eta eszenaratzea kale-arteetan:

- Maskarak egiteko tailerra

azaroaren 17, 18, 19, 20an

- Maskaratik pertsonaia sortzea

azaroaren 24, 25, 26, 27an

Antolatzailea: ARTEKALE

Laguntzailea: Autor fundazioa

NORENTZAT:

Ikastaroa eszena munduko aktoreei, sortzaileei, zuzendariei eta, orokorrean, edozein kale-artetako profesionali zuzenduta dago. Bi bloketan banatu dugu ikastaroa; beraz, bakar batean edo bietan eman daiteke izena.

Lehenengo blokean maskarak egiten ikasiko dugu, tailer batean. Buztina, eskaiola eta papera erabiltzen dira. Maskaren eraikuntza ez da aseptikoa; izan ere, materiala eta maskarari ematen zaion espresioa ikastaroaren bigarren zatiarekin lotuta daude. Baina maskara egiteko zatia bakarrik ikasi nahi dutenek ere lehenengo ikastaroan aukera paregabea dute.

Bigarren blokean, egin dugun maskarak eskatzen dizkigun espresio-garapenak, edo guk maskarari bizia emanez lortu ditugun espresio-garapenak, aztertuko ditugu. Lehenengo zatia egin ez duten ikasleei maskarak utziko dizkiegu, bigarren zati honetan lan egin ahal izateko.

EGITARAUA:

Maskaratik pertsonaia sortzea

Ikastaroaren gidoia.-

- Tailerrean lanerako maskara egitea.
 - o Modelatzea
 - o Espresioaren diseinua
 - o Margotzea
 - o Maskararen kontserbazioa
 - o Behin betiko akabera

- Bukatutako lan batek eskaintzen dituen oinarritzko espresio-aukerak aztertzea:
 - o Maskararen begirada
 - o Gorputzaren espresioa
 - o Espresioaren ñabardurak
 - o “Gutxiago gehiago da” – garbitasuna espresioaren jokoan

- Garapen fisikoen eta gorputz garapenen aldiberekotasuna, maskara neutro batetik abiatuta.
- Pertsonaiaren sorkuntza indibiduala: norberaren maskara sortu ondoren, eboluzionatu egingo da, pertsonaiaren nortasunean sakonduz, eszena txikien eta antzerki-egoeren bitartez. Azkenik, jendearen aurrean erabiliko da, kalean.

Finean, pertsonaia baten eraikuntzan eta garapenean eboluzionatzea da helburua, baina betiere espresioa esparru ireki eta ez-ohikoetara eramanez. Espresio hori nola areagotu, maskarak erabiltzen direnean gorputz-bizitzak komunikaziorako aukerak ez agortzea nola lortu, funtsezko arazoak dira hiri-inguruan edo kalean, mezua ez dadin galdu espazio zabalean eta zaratak estalita.

Horrezaz gain, lan fisikoko ildo batzuk jorratuko ditugu. Haien bidez, Marcel Marceaturen gorputz-mimoko eskolen lan-oinarrietara edota Étienne Decroux-en mimoaren ideia abstraktuagoetara hurbilduko gara.

DATAK:

- **“Tailerrean maskara sortzea”**, Kukubiltxo konpainiako Josu Cámararekin. Konpainia honek lehenago Family Flöz-eko kideekin batera lan egin du maskarak sortzen edo egiten, eta maskaratik abiatuta pertsonaiak sortzen.

DATAK: azaroaren 17, 18, 19 eta 20an

IRAUPENA: 16 ordu

ORDUTEGIA: 10.00etatik 14.00etara

TOKIA: Larrabetzu (Kukubiltxoen tailerrean)

- **“Maskaratik pertsonaia sortzea”** Thomas Racher-ekin, Family Flöz alemaniar konpainiako aktorea eta idazleetako bat

DATAK: azaroaren 24, 25, 26 eta 27an

IRAUPENA: 16 ordu

ORDUTEGIA: 10.00etatik 14.00etara

TOKIA: Arrigorriagako Lombo Aretoa

IRAKASLEAK:

Maskararen sorrera**Josu Cámara Izagirre.**

Irakasle-eskolako titulua dauka. Bost urtez dinamika, psikomotrizitate eta espresio irakaslea izan da Algortako San Nikolas ikastolan (Bizkaian). Erandioko Altzaga Kukularra ikastolan (Bizkaian) irakaslea eta zuzendari teknikoa izan da bi urtez. Sasoi hartan zenbait ikastaro egin zituen “txotxongiloaren artea eta espresioa irakaskuntzan” gaiaz.

Antzerkia

Arte eszenikoetako lehenbiziko lana 1980an egin zuen. Aktore lanak egin zituen “Jimi Potxolo”n, Maskarada konpainiarekin.

1982an Kukubiltxo Antzerki Taldea konpainian sartu zen. “Lore aeta Naki eta Bere Laguak” bideoan parte hartu zuen. 1983. urteaz geroztik, hau da, Kukubiltxo profesionalizatu zenetik gaur arte, konpainiako zuzendaria da. Zeregin ezberdinak bete ditu: zuzendaria eta aktorea/manipulatuzailea, zuzendariaren laguntzailea, gidoilaria... Era berean, telebistarako eta bideorako hainbat lan manipulatu, bikoiztu eta egokitzen jardun du.

Tailerrak

Kukubiltxo konpainiak bere tailerra dauka eszenografia, txotxongiloak, maskarak eta abarrekoak egiteko. Beren ikuskizunetarako nahiz beste batzuentzat (antzerki konpainiak, bideo eta telebistako ekoizpen-etxeak, eta abar) egiten dituzte.

Josu Cámarak lan horiek egiten laguntzen du, diseinua egiten du edota lanak gainbegiratzen ditu.

Antolatzailea:

Maskaratik pertsonaia sortzea

Thomas Rascher

Pantomimoa, aktorea, mugimenduaren pedagogian diplomatua Franklin metodoan eta maskara egilea. Essen-go Folkwang Hochschule eskolan pantomima ikasi zuen. Haren maisuak, besteak beste, Günter Titt irakaslea, Bettina Falckenberg, Milan Sladek irakaslea, Pierre Byland izan ziren.

1989. urteaz geroztik zenbait proiektutan artista gonbidatu gisa jardun du (Junges Theater CASA NOVA, Essen abeslariak) eta bere ekoizpenak ere egin ditu.

Familie Flöz-ekin, "Famile Flöz kommt über Tage" eta "Hotel Paradiso" lanen egileetako bat eta aktorea da. Folkwang Hochschule-ren saria, Velbert hiriko artearen eta kulturaren saria, Theaterzwang saria (antzerki independenteko aparteko ekoizpenak) 1996an, Koblenz-eko Gaukler saria eta Hannover-eko Querkunst saria (1999an) jaso ditu.

Bochum-eko Schauspielschule-n irakaslea da 1999az geroztik (Folkwang Hochschule-ko departamentua, maskarak, pantomima eta gorputzeko lana). Irakaslea da Remscheid akademian, heziketa medialean eta helduentzako espezializazioan (opera, gorputzeko lana trebakuntza erritmikoan).

2000tik 2006ra arte "Mus-e"ren zenbait proiektutan artista izan da. Mus-e kultura askotako europar eskola-proiektua da, Yehudi Menuhin fundazioak sortua.

Mugimenduko koreografiak eta borroka-eszenak egin zituen "The Fantasticks" lanerako, musicalensemble nrw, eta "El Hombre de La Mancha" lanerako, Westfälisches Landestheater Castrop-Rauxel.

MATRIKULA (prezioak BEZ barne)

Bi ikastaro:

Ikasleak:

Matrikula: **150 €**

ARTEKALE edota SGAEko bazkideentzat: **120 €**

Ikastaro bakarra:

Ikasleak:

Matrikula: **90 €**

ARTEKALE edota SGAEko bazkideentzat: **70 €**

INFORMAZIO GEHIAGO, IZENA EMATEA ETA ORDAINTZEKO MODUA

Matrikula guztiak zuzenean Artekaleren bidez egingo dira, EZ Autor fundazioaren bidez.

ARTEKALE (Landetxe poligonoa 2748480-Zaratamo)

Teresa Gutiérrez Zabalza

94 671 12 89

artekale@gmail.com

Eskaerak izena ematen duzuen ordenan jasoko ditugu, leku guztiak bete arte. Gutxieneko matrikula kopuru bat ez badago, antolatzaileak eskubidea du tailerra bertan behera uzteko. Antolatzaileak ziurtagiri bat emango du ikastaroa bukatzean.